

Heri Aldizkaria **Otamotz**

1999ko apirila 46. alea





Korrika 11ko
argazkiak



A. Alejandrekin
elkarrizketa



Txikiteroa, galtzear
dagoen espezia?



XIII. Antzerki Astea

APIRILEKO AGENDA

4. igandea

Antzinako Ama txistulari taldearen kalejira goizeko 9:30etan.

Goierrri K.E.ko zikloturisten txangoa: Kaseta-Lizarrusti 9etan.

5. astelehena

Antzinako Ama txistulari taldearen kalejira goizeko 9:30etan.

Haurrentzat festa Antiguako kanpan 16:30etan.

6. asteartea

Haurrentzako eskulan tailerra hilak 10erarte Urretxuko Kultur-Etxean. Txotxongilo tailerra Zumarragako Euskadi plazan hilak 9arte.

9. ostirala

Eskulan eta txotxongilo tailerretan egindako lanen erakusketaren hasiera. Zumarragako Itarte etxean.

10. larunbata

Taupada taldearen "Mari Sorgin" txotxongilo antzerkia. Pagoeta antzokian, 17etan.

11. igandea

Haurrentzat zinea: 16:30etan "Fivel eta munda" 18:30etan "8 cabezas" La Salleko zinema aretoan.

Goierrri K.E.ko zikloturisten txangoa: Errezil-Bidegoian. 9:30etan.

11. igandea

Ostadar mendi taldearen irteera Cantabriako mendietara.

12. astelehena

Mairi Elkarateak antolatutako kafe eta berriketaldi literarioak. Urretxuko Kultur Etxean 16etan.

17. larunbata

Mikel Markez eta Pako Aristiren kontzertua Zuhaitzaren Soinuaren laguntzarekin. Pagoeta Antzokian 20etan. Sarrerak salgai 500 pztatan Aldiri, Osaba, Alaska eta Kultur Etxean. Antolatzailea: Aldiri K.E.

18. igandea

Zumarragako Musika Bandaren kontzertua La Sallen 13etan.

Haurrentzat zinea La Sallen: 16:00etan: "Valhalla" 18:30etan "Deep Impact"

Goierrri K.E.ko zikloturisten irteera: Legazpi-Untzilla. 9:30etan.

19. astelehena

Mairi Elkarateak antolatutako kafe eta berriketaldi literarioa. Kultur-Etxean 16etan.

Antzerki Astea: Albena taldearen "Mandibula Afilada" antzezlan. Pagoeta Antzokian 20:30etan.

20. asteartea

Antzerki Astea: Ados konpainiaren "Desperrados" lana. Pagoeta Antzokian 20:30etan.

21. asteazkena

Antzerki Astea: Teatro Corsario taldearen "Vampyria" antzezlan. Pagoeta Antzokian 20:30etan.

22. osteguna

Antzerki Astea: Haurrentzako emanaldia La Salle aretoan 11etan eta 15etan. Ñake taldearen "Cómicos muy peligrosos" antzezlan. Tom Cat tabernan 22:30etan.

23. ostirala

Antzerki Astea: Lakrikun taldearen "Ez dira berdinak, antzekoak baizik" antzezlan. Pagoeta Aretoan 22:30etan.

24. larunbata

Antzerki Astearen barne, oraindik zehaztu gabeko antzezlan. Pagoeta Aretoan 22:30etan.

25. igandea

Musika tailerraren kalejira Urretxuko kaleetan zehar, 12etan.

Goierrri K.E.ko zikloturisten irteera: Altzo Goiko-Lizartza. 9:30etan.

Haurrentzat zinea La Sallen: 16:30etan: "Babar elefantea". 18:30etan: "Black dog".

Antzerki Astea: 20:30etan Tanttaka taldearen "Dakota" antzezlan. 22:30etan: zehaztu gabeko antzezlan.

26. astelehena

Mairi elkarateak antolaturiko kafe eta berriketaldi literarioa. Kultur Etxean 16etan.

29. osteguna

Gurutz Linazasoro medikuak eskeinitako hitzaldia Kultur Etxean 15:30etan. Gaia: "Oroimenak ulertzeko gakoak".

MAIATZAK 7

Benito Lertxundiren kantaldia Ederrena Pilotalekuan. Sarrerak apirilaren 26tik aurrera salgai izango dira Kultur Etxean 1000 pztatan.

Lehiaketak:

Santa Isabel jaietako egitarauaren azalerako lanak aurkezteko epea maiatzaren 14rarte zabalik dago.

Narratiba eta poesia lanen Iparragirre sarian lanak aurkezteko epea ekainak 18rarte zabalik dago.

Pintura, argazki, komiki eta bertso-paperean lehiaketetan lanak aurkezteko epea irailak 10ean bukatuko da.

Erakusketak:

Juan de Lizarazu aretoan: Enrique Velázquez en pintura erakusketa apirilaren 8tik 18ra.

Iñaki Mariñelarenaren pintura eta eskultura erakusketa apirilaren 29tik maiatzaren 9ra.

Itarte Etxean:

1999ko Antzerki asteko karte- la aukeratzeko lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa apirilaren 16tik 23ra.

Buhame taberna:

1986-1999 bitarteko Antzerki Asteko kartelen erakusketa hilak 25a arte.

Aldiri K.E.an:

Apirilaren 12tik 19ra M.J. Azurmendiren oleo erakusketa.



1950 urte inguruko argazkia dugu ezkerrekoa. Maiatzaren 31an Gurutzeko Alaben eskolan ospatu ohi zen Lorerik Politenaren festakoa dugu. Goiko ilaran: M^a Cruz Badiola, Rosarito Albisua, M^a Carmen Albisua eta Puri Berasategi. Beheko ilaran: M^a Carmen Zaldúa, M^a Socorro Urtaran, Maite Etxaniz eta M^a Jesus Mendizabal.

MURUA

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans
LONDON



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA

LA SALLE - LEGAZPI Ikastetxea



Iñigo Loiola, 7
943 721514
ZUMARRAGA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.

Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

Azala: Iban Barrenetxea (antzerki asteko kartela). **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:**

<http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 722599



Legazpi, 5
943 726274
ZUMARRAGA

Korrika 11 Urretxu-Zumarragan



Nahiz eta kalera ateratzeko ordurik onena ez zen, jende asko bildu zen herriotako kaleetan Korrika 11 bertatik pasa zen egunean. Lekukoa gauerdian Deskarga gainean hartu behar zenez, euskaltegi-koek afari herrikoia antolatu zuten jendea kalera ateratzera animatu eta gauerdia bitarteko orduak elkarrekin igarotzeko. Txatunga Benbe perkusio taldeak giroa alaitzen lagundu zuen.



Gauerdia arte jendea dantzan aritu zen arren, korrika egiteko indarrak gorde zituzten. Korrika 11 Urretxun sartu zenean ehundik gora lagunek pankarta atzean jarri eta lekukoa Legazpiarrei eman arteko bidea bete zuten. Benetan aipagarria izan zen jendearen partaidetza. Orain garrantzitsuena geratzen zaigu: hartutako konpromisoa eguneroko jardunean betez Urretxu eta Zumarraga benetan herri euskaldun bilakatzea!

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLAREN GEHIGARRIA



Lana gogor egin ondoren hemen dugu jada ikasturteko bigarren oporraldia. Eguraldi ona egiten badu kirola egiteko aukera paregabea izango dugu eta ikasturte bukaerarako indarrak berrituko ditugu.

Korrika Txikian ere jo eta su ibili zineten! Zumarragako plazara gorritu xamar iritsi arren, argazkian behintzat pozik atera zineten.

Ondo pasa Aste Santuko oporrak eta aukera baduzue ahalik eta kirol gehien egin!



TXIKIMOTZ

ATLETISMOA

99-3-13 (LEHENENGO JARDUNALDIA)

80 M. HESIAK INFANTIL MUTILAK

1.	Julen Verde	Ikastola	14.38
2.	Josu Ureta	Haztegi C	14.45
3.	Josu Barquero	Ikastola A	15.66
4.	Mikel Castrillo	Haztegi B	15.68
5.	Josue Morales	Iparragirre B	16.53
6.	Iñigo Altolagirre	Iparragirre A	16.77
7.	Mikel Iturbe	Olazabal A	17.34
8.	Borja Hernández	La Salle	18.61
9.	Josu Galilea	Olazabal B	19.40

150 M. INFANTIL MUTILAK

1.	Joseba Castaño	Olazabal B	20.41
2.	Arkaitz Peláez	Haztegi C	20.52
3.	David Otamendi	Iparragirre A	22.77
4.	David Calvo	Olazabal A	22.86
5.	Joseba Alberdi	Ikastola B	23.24
6.	Ioritz Zufiria	Ikastola A	23.53
7.	Ekain Hernández	Haztegi B	24.67
8.	Jon Vizuite	La Salle	25.12
9.	Iñaki Omañas	Iparragirre B	27.14



1.000 M. INFANTIL MUTILAK

1.	Roberto Casado	Olazabal B	3.30
2.	Oliver De Castro	Olazabal B	3.35
3.	Unai Pérez	Ikastola B	3.37
4.	Peio Alberdi	Ikastola A	3.43
5.	Aitor Arando	Haztegi C	3.45
6.	Asier Bergara	Iparragirre A	3.51
7.	Juan Del Canto	Haztegi B	3.53
8.	Zakarias Dhaili	La Salle	3.54

DISKO JAURTIKETA INFANTIL MUTILAK

1.	Erramun Sánchez	Haztegi C	21.25
2.	Txema Franco	Olazabal B	20.26
3.	Juanjo Usabiaga	Ikastola A	16.10
4.	Mikel Plazaola	Iparragirre B	15.10
5.	Iñaki Garcia	Olazabal A	14.40
6.	Asier Altolagirre	Iparragirre A	14.10
7.	Joseba Luzuriaga	Ikastola B	13.18
8.	Egoitz Santos	Haztegi B	13.10

80 M. HESIAK INFANTIL NESKAK

1.	A. Urretabizkaia	Ikastola A	14.5
2.	Maite Perea	Haztegi C	14.9
3.	Cintia Tolosa	Iparragirre	16.5
4.	Ane Arrando	Haztegi B	17.2
5.	Leire Mate	Haztegi A	17.4
6.	Salome Puebla	La Salle	18.2
7.	Olatz Oiartzabal	Ikastola B	18.9
8.	Ioana Lorza	Olazabal A	19.3

150M. INFANTIL NESKAK

1.	Garazi Jaka	Haztegi A	23.54
2.	Leire Isasa	Haztegi C	24.07
3.	Ane Otegi	Haztegi B	24.94
4.	Sara Pérez	Iparragirre	25.59
5.	M. C. Segovia	La Salle	25.63
6.	Nagore Arozena	Ikastola B	26.08
7.	Nerea Enriquez	Olazabal A	26.26
8.	Amaia Pérez	Ikastola A	27.76



DISKO JAURTIKETA INFANTIL NESKAK

1.	Loitzune Rodriguez	Haztegi C	16.10
2.	Ariadna Aristegi	Ikastola B	14.82
3.	V. Hernández	Olazabal A	12.92
4.	Olaia Garijo	Haztegi A	12.90
5.	Maialen Mujika	Ikastola A	12.80
6.	Usue González	Haztegi B	11.30
7.	Sara Portillo	La Salle	9.16
8.	Tania Box	Iparragirre	9.08



1000 M. INFANTIL NESKAK

1.	Maria Sánchez	Haztegi C	3.54
2.	Ana Azkona	Ikastola	3.57
3.	Lide Esnal	Ikastola B	4.07
4.	Elena Lozano	Olazabal A	4.10
5.	Noelia Vivas	La Salle	4.12
6.	Leire Villanueva	Iparragirre	4.18
7.	Miriam Zaldúa	Haztegi A	4.25
8.	Amaia Aseginolaza	Haztegi B	4.35

"NESKEN KIROLARI EZ ZAIO BEHAR ADINA ARRETA JARTZEN"

Hilabete honetan Gainzuri ikastetxean 5. eta 6. mailan dauden neska batzuekin hitz egin dugu.

Saskibaloian jokatzeko ari dira, ikasturtean zehar kirol asko egiten badituzte ere. Oso pozik zeuden, elkarriketa partidua irabazi ondoren egin baikenien. Taldea hamaika lagunek osatzen dute, beraz badute aldaketak egiteko aukera. Batzu aurten hasi dira eskola kirolean, baina besteek bigarren urtea dute.

-Zer kirol egin behar dituzue aurten?

Orainarte eskubaloia, atletismoa, saskibaloia, futbola, igeriketa eta herri kirolean aritu gara. Saskibaloiarekin bukatu ondoren, beisbol eta pelotan arituko gara.

-Zein kirol duzue gustuko-en?

Futbola da gehien atsegin duguna, nahiz eta partidu bakarra irabazi genuen oso ondo pasatzen genuen.

-Eta saskibaloian, zer moduz ari zarete?

Orainarte 4 partida jokatu ditugu eta hauetatik bi irabazi. La Salle, Haztegi eta Ikastolakoekin jokatzeko dugu.

-Entrenatzailea aurrean dagoen arren, egia esan: jatorra al da?

Bai...! Idoia oso jatorra da eta txokolatada eta guzti egiten dugu berarekin. Entrenamenduetan korrika, beroketa ariketak eta jokuak egiten ditugu. Batzutan korrikan nekatu egiten gara, baina ez dugu entrenatzailez aldatu nahi.

-Idoia, zu ere gustura al zaude beraiekin?

Bai, neska jatorrak dira; baina kuxkuxera xamarrek dira eta azkenean denok kuxkuxeatzen bukatzen dugu.

-Nesken kirolari behar adina arreta jartzen al zaio komunikabideetan?

Ez, oso neska gutxi ateratzen dira telebistan kirola egiten eta normalean nesken kiroltzat hartuak direnak egiten dituztenak bakarrik: gimnasia, patinaia... tenisla-riak ere bai.

-Lehenago futbola gehien atsegin duzuen kirola dela esan duzue, zein da zuen gogoko taldea?

Gehienok Realekoak gara, baina Aiala Alavesekoa da. Gehien atsegin dugun jokalaria Idiakez da. Ez dugu neska kirolari bat bereziki atsegin.



Aiala, Leire, Anabel, Miren, Nerea, Leire, Izaro, Jone, Nerea, Maialen, Edurne, Alazne eta Leire; Idoia entrenatzailearekin.

Aste Santutan oporretara joateko asmorik ba al duzu?



Irati, Nagore eta Ander

Bañares, Riezu eta Landetara goaz. Oso gustura joaten gara, urtero joaten garenez bertan lagunak eginak baititugu jada.



Nestor André

Extremadurara joango naiz gurasoe-kin, bertan dugun familia bisitatzera.



Maria Jesús Mendiola

Gustura joango nintzateke, baina lana egin beharra dut. Gainera normalean Aste Santuan ez naiz behin ere oporretara joaten, urtero lana izaten baitut.



Mentxu Villamayor

Aurten ez datorkit ondo oporretara joatea eta udan ere ez naiz joango. Hala ere, beste urte batzuetan joan izan naiz Aste Santuan.



Juan Gabriel García

Bai, apirilaren lehenengotik hamaikara arte Sevillara joango gara familiarengana. Dena den, orain opor luzeak ditugun arren, udan 18 egunekoak soilik ditut.



Mónica Díez

Ez naiz inora joango, normalean Aste Santuan lan egitea suertatzen baitzait. Dena den, udan 15 egunetan oporrak hartu eta beharbada kanpora joango naiz.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

XIII. Antzerki Astea

Urtero bezala eta Aste Santua pasa ondoren, hemen izango dugu Urretxu-Zumarragako Antzerki Astea. Urtero Josu Etxeberriari omenaldi txiki bat izaten den hau apirilaren 19tik 25era bitartera izango da aurten.

Karmakros taldearen ekimenez eta bi udalen laguntzaz sortu zen Antzerki Astea urtetik urtera hazten joan da, eta egun Urretxu-Zumarragan urtean zehar antolatzen den kultur ekintza nagusienetakoa da. Bi herriotatik pasa diren antzerki taldeen zerrenda izugarri luzea da eta esanguratsuenak azpimarratzea zaila da: Ur, Maskarada, Geroa, Markeliñe, Tanttaka, El Brujo, Leo Bassi... Euskal Herria zein kanpoko taldeen zerrenda amai-gabea da.

Kalitatezko antzerkia ekartzeko saiakera honek bere fruituak eman ditu eta egun Antzerki Astea zeharo finkatua dugu. Lehenengo urteetan Itzalon zinema leporaino betetzen zen eta egun berdin gertatzen da Pagoeta antzokian.

Halere, hasierako egun haietatik gaurdaino gauzak asko aldatu dira. Urretxuko Buhame tabernan Antzerki Astea aurkezteko urte haue-tan guztietan erabili diren kartelen erakus-keta ikusgai dugu. Antzerki Asteak ezagu-tu duen garapena kartelen diseinuak eta konposaketak erakusten duten bidea jarraitu duela esan daiteke. Urte batean, Antzerki Astea ospatu beharrean, antzerki eskeintza urte osoan zehar zabaltzea era-baki zen. Baina ekimenak ez zuen eran-tzun onik jaso eta jendeak Antzerki Astea eskatzen zuela ikusi-rik formula zaharrera itzuli zen.

GERTAERA AZPIMARRAGARRIAK

Hainbeste urte ondoren, gertaera bereziak ere asko izan dira. Behin Zelai-Aristi zineman Oscar sarien antzeko ospakizun bat burutu zen. Herritar asko, ahalik eta jantzirik dotoreena lortu eta ileapaindegitik pasa ondoren, herriko eta inguruotako kotxe garestienetan zinemara hurbildu zen festa hartan parte hartzeko. Bertan zinema lepo-raino zegoelarik, txantxetako sari bana-keta benetako Oscar sariak izango balira bezala ospatu zuten. Ikus daitekeenez, iru-dimena eta herriaren partaidetza Antzerki Astearen ezaugarri garrantzitsuak izan dira.

Aurtengo Antzerki Asteari dagokionez, aurkez-pen kartela aukera-tzeko lehiaketa Elgoibarko Iban Barrenetxeak irabazi du eta kartel irabazlea aldizkari honetako

azalean ikus daitekeena da. Hilaren 16tik 23ra bitartean kartel lehiaketara aurkeztu diren lanak ikusgai izango dira Itarte etxe-an. Aurtengo egitarauan, urtero bezala, denetatik dagoela esan daiteke: txotxongiloak, haurrentzako antzerkia, umorezkoa...

AURTENGO EGITARAUA

Egitarauan zerbait azpimarratzea zaila bada ere, hona hemen aurten izango ditugun hiru antzezlanen ezaugarri nagusiak:

Apirilaren 20an, astearte, Ados Teatroak "Desperrados" lana aurkeztuko du euskaraz. Istorioa etsita dau-den baina irudimena, talentua eta umore ona soberan duten zen-bait pertsonaien inguruan eraikia dago. Hurbil egon arren eza-gutzen ez diren pertsonaia hauen istorioak, gurutzatzearen pode-rioz korapilatu egiten dira. Antzezlan honetan duela astebete euskal aktoreen galan aktore errebelazio saria jaso zuen Nagore Aranburuk parte hartzen du.

Hurrengo egunean, asteazkenean, Valladolideko Teatro Corsariok txotxongilo-en "Vampyría" antzezlan-a aurkeztuko du. Banpiro emakumearen inguruko beldurrez-ko istorio honek, akzio bizkorra, txotxongi-lo handiak eta apainduak, eszenatoki zabala eta musika zoragarria ditu eta ez dago hau-rrerentzat egina. Ikusleak txundituta uzten dituen antzezlan-a da eta kritikaren esanetan, egun Europa mailan ikusi daitekeen txo-txongilo antzezlan bikainenetakoa da.

Apirilaren 25, igandean, Tanttaka Teatroak arrakasta itzela izaten ari den "Dakota" lana antzeztuko du. Lan hau Bartzelonako Tricycle, Dagoll Dagom eta Anexa talde ezagunek osatzen duten 3xtr3s taldearekin elkarlanean prestatua dago. Antzezleak aski ezagunak dira gure artean: Jose Ramon Sorioiz, Aitzpea Goenaga, Ramon Agirre eta Joseba Apaolaza urretxua-rra.

"Dakota" lanean haginlari batek bere ametek etorkizuna ira-gartzen dutela pentsatzen du eta obsesiora iritsiko da. Honen

eraginez, iragarpenak bete-tzen diren edo ez ziurtatze-ko estrategi xelebreak pres-tatuko ditu. Errealitate eta ametsaren arteko muga eza-batuz joango da eta bere bizitza amildegirantz era-mango du. Eroriko al da?

Hauek dira Antzerki Astean ikusi ahal izango ditugun antzezlane-tako batzuk, eskeintza bikaina ezbairik gabe. Antzerkiaz gozatu nahi baduzue, sarrerak Urretxuko Kultur Etxean eta Zumarragako Udaletxeko Kultura Sailean salgai daude. Sarrerak 700 pezeta balio dute eta aste osorako bonoek 3.000 pezeta.

Apirilaren 19tik 25era bitartean ospatuko da

TALDEA EGUNA	ANTZEZLANA LEKUA	EUS./GAZ.	ORDUA
TEATRO ALBENA 99-4-19	"MANDIBULA AFILADA" (PAGOETA)	GAZTELERAZ	20:30
ADOS TEATROA 99-4-20	"DESPERRADOS" (PAGOETA)	EUSKARAZ	20:30
TEATRO CORSARIO 99-4-21	"VAMPYRIA" (PAGOETA)	GAZTELERAZ	20:30
PORPOL 99-4-22	"XOLA" (haurrentzat) (PAGOETA)	EUSKARAZ	11:00 15:00
ÑAKE 99-4-22	"COMICOS MUY PELIGROSOS" (TOM-CAT TABERNA)	GAZTELERAZ	22:30
LAKRIKUN TALDEA 99-4-23	"EZ DIRA BERDINAK, ANTZEKOAK BAIZIK"	EUSKARAZ	22:30
ZEHAZTU GABE 99-4-24 PAGOETA ANTZOKIAN		GAZTELERAZ	22:30
TANTTAKA 99-4-25	"DAKOTA" (PAGOETA)	EUSKARAZ	20:30

Antzerki Tailerra antzezlan berri bat prestatzen ari da



Antzerki tailerreko lagunak antzezlan berria entsaiatzen.

Urtean behin aste batean zehar antzerkia Urretxu eta Zumarragako kultur ekintza nagusi bihurtzen bada ere, Antzerki Tailerreko lagunak eguneroko lana jorratzen dute herrian antzerkia bizirik mantenduz eta gustukoa duten jardura burutuz.

Antzerki Tailerra duela zazpi urte inguru hasi zen martxan. Lehenago herriko Karmakros taldean ibiliak ziren Josu Etxeberría eta Juanlu Escuderok bi udalei desagertutako taldearen hutsunea betetzeko proposamena luzatu zieten. Hasieran 15 lagun inguru bildu ziren eta asteen bitan elkartzeko ziren. Urte hauetan guztietan jende asko pasa da tailerretik, hau dela eta aldaketak ezagutu ditu. Laugarren urtean lehenagotik zeudenek zuten esperientzia zela eta, taldea bitan zatitu zuten: alde batetik berriak eta bestetik urteak zeramatzenak. Talde bakoitzak asteko egun bat zuen bere entsaiuak burutzeko.

Duela urte batzuk antzerkia euskaraz eta erdaraz egiten zutenen artean zatitu zuten, euskaldunek Patxi "Poxpolo" k idatzitako "Txin-txin hotsak ez du Gregorio kezkatzen" lana prestatzeko ekin baitzieten urtebetez. Lana gogor egin ondoren antzezlanak Azpeitian aurkezteko aukera izan zuten. Baina ez da antzezlan hau izan orainarte jendaurrean aurkeztu duten bakarra. Besteak beste, "Marasade" eta "Ni laugarrenera, eta zu?" antzeztu dituzte.

Lan hauetan guztietan prozesu guztia herriko lagunak burutua da: eszenografia, jantziak, argiaren diseinua... eta horrela jarraitu nahi dute. Euren helburua, gustukoa


dutena egiteaz gain, herriari bi urtetik behin gutxienez antzezlan berri bat eskeintzea da.

ANTZEZLAN BERRIA

Egun ere Antzerki Tailerreko lagunak bi taldetan lan egiten dute: astelehenetan gazteek entsaiatzen dute eta astearteetan "El regreso" izeneko antzezlan berri bat prestatzen ari dira. Istorioak Frantses Iraultza garaian sortu diren haur batek sorginaren mutil-lagun hila berpizten saiatzen direneko gertaerak biltzen ditu. Endredu bodebileskoa da, pertsonaiek sartu-irten ugari burutzen dituzte eta gaizki ulertuak ere asko dira. Antzezlan honetan 4 neskak eta 3 mutilek parte hartuko dute. Eszenografi diseinuaren bozetua Koldo Cadiñoren esku utzi dute eta Mikel Arranz garai hartako janzkeraren inguruan dokumentatzen ari da.

Ez dute antzezlanaren prestaketa bukatzeko datarik jarri. Izan ere, euren esanetan, antzezlan bat aurrera ateratzeko duten arazo nagusia denborarena da. Lana eta ikasketak direla eta, asteen behin soilik entsaia dezakete eta honela lana izugarri luzatzen da. Eguneroko lanean aurrerapenak bi hilabete inguruan jada ikusten badira, eurek denbora luzeagoa behar izaten dute.

Lan hau jendaurrean noiz aurkeztuko duten ez badakite ere, tailerreko gazteenek bakarriketa bana prestatua dute eta ekainean familiakoen eta lagunaren aurrean aurkeztuko dute. Honela euren lana jendaurrean erakusteko eta esperientzia lortzeko aukera izango dutelarik.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F. URRETXU

☎ 725682

722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

☎ 72 42 55

Legazpi, 14
ZUMARRAGA



☎ 43 19 72

Getaria, 18
DONOSTIA



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 ☎ eta faxa 943 725828
20700 URRETXU

Urola futbol taldearen Aste Santuko futbol txapelketa

Urola futbol taldeak 1. mailako infantilentzako Aste Santuko antolatzen duen futbol txapelketa apirilaren lehenengoan jokatuko da goizeko 9:30etatik arratsaldeko 14:00etara. Aurtengo hau bosgarren edizioa dugu, Iñaki Mendiluzeren omenez antolatzen den laugarrena delarik.

Aurten Erreala, Athletic, Osasuna, Eibar, Alaves, Martutene, Idiazabal eta Urola taldeek parte hartuko dute. Inguruko talde gehiago eta ia aritu zirenak ere gonbidatzeko asmoa zuten, baina denek baiezkua eman dutenez urtero Zumarragan izan diren Martutene eta Idiazabali lehentasuna eman diete.

Beharbada datorren urtean txapelketa arratsaldera ere luzatuko dute etorri nahi duten talde guztiei aukera emateko eta Euskal Herriatik kanpoko taldeak ere ekartzeko. Aurten Barcelona taldea ere gonbidatu dute Urolakoek, baina azkenean ezin izan da etorri.

Taldeetan 8 jokalarik egongo dira eta partidu bakoitzak 20 minututako iraupena izango du. Finalak, ordea, ordu erdi iraungo du. Launa taldez osaturiko bi multzo egongo dira eta ligaxka jokatu ondoren, multzo bakoitzeko bi onenek gurutzaturiko finalerdiak jokatuko dituzte. Lehen multzoan Erreala, Alaves, Idiazabal eta Urola izango dira eta bigarrenen, berriz, Athletic, Osasuna, Eibar eta Martutene. Egun Urolaren txapelketa 1. urteko infantilek Euskadi mailan duten txapelketa garrantzitsuenetakoa da eta urtero-urtero jende asko hurbiltzen da Argixaora etorkizuneko futbol izarak izan daitezkeenak ikustera.



Euskara Txukuntzen ikastaroa Zintzo-Mintzoren eskutik

Urtero bezala, Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteko kultura taldeak Euskara Txukuntzen ikastaroa antolatu du apirilerako.

Aurtengo ikastaroa Lazkaoko Maizpide euskaltegiaren eskutik izango da apirilaren 13, 15, 20 eta 22an arratsaldeko 6etatik 8etara Urretxuko Kultur Etxean. Ikastaroaren prezioa 1.500 pezetatakoa da Zintzo-Mintzoko bazkide direnentzat eta 2.000 pezetatakoa bazkide ez direnentzat.

Ikastaroaren programan honako gaiak bildu dira besteak beste: neurriak, harridurazkoen erabilera kaskarra, zenbait aditzen erabilera okerra, ahaleraren gehiegizko erabilera, alferrikako erlatiboa...

Ikastaroa euskararen erabilera txukundu nahi duen edonori zabalik dago eta bereziki eguneroko erabilera zuzena hain beharrezkoa duten gure eskoletako irakasleei.


95ean hasi zen ikastaro honetatik Miren Azkarate eta Patxi Goenaga pasa dira besteak beste eta ia ikastaroaren ordezkuntz ihardunaldiak antolatu baziren ere, aurten ikastaroa antolatzeraz bueltatzea erabaki da.

Lizarra-Garaziko akordioaren Zumarraga -Urretxuko Batzordearen prentsaurrekoa

Lizarra-Garaziko Akordioa izenpetu duten sindikatu eta alderdi politiko batzuetako Zumarraga-Urretxuko ordezkariak herriotan Lizarra-Garaziko Batzordea sortu dute. Batzordea, ELA eta LAB sindikatuek, eta IU-EB, HB, EAJ-PNV eta EA alderdiek osatzen dute oraingoz baina "irekia dago nornahirentzat, hori bai datorrena, datorrela bakearen alde eta arma bakartzat hitza duela. Izan ere, mugarik gabeko elkarriketa aldarrikatu dugu. Beste modu batera esanda, desberdinak garenon artean elkar-ulertzea; horixe baitago Lizarra-Garaziko Adierazpenaren oinarri-oinarrian".

Batzordea osatzen duten alderdi politiko eta sindikatuek "inoiz ez bezalakat" jo zuten aukera galtzen utzi nahi ez dutela eta, honako bost puntuok luzatu zituzten:

1. Bakearen alde lan egiteko konpromezua hartzen dugu.
2. Inor baztertuko ez duen elkarriketa eta negoziazio prozesua nahitaezkoak ikusten ditugu azken helburua lortzeko.
3. Sakon-sakoneko arazo politikoak konpondutakoan, eta ez bestela lortu ahal izango da bake iraunkor eta benetakoa.
4. Indarkeriazko ekintza mota guztiak desagertzea ezinbestekotzat jotzen dugu arazoaren konponketa prozesuak aurrera egin dezan.
5. Euskal Herriak hitza eta erabakimena izan behar ditu. Hortxe dago, gure iritziz, konponbidearen gakoa. Beraz, arazoan inplikaturiko alderdi guztiek, konpromezua hartu beharko lukete Euskal Herriak bakebidez eta demokratikoki erabakitakoa errespetatzeko.



Marta López de Gaunaren pintura eta grabatu erakusketa

ikusgai izan dugu martxoaren 21a bitartean Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan. 94a eta 98a bitartean Arte Ederrak ikasi zituen Leioako fakultatean ikusentzunezko adarrean, pintura eta grabatu ikasketak ere eman dituelarik. 95ean Urretxu eta Zumarragako pintura lehiaketako erakusketarako hautatua izan zen bere lana.

Erakusketa honetan paisaiak, margo abstraktuak eta grabatuak izan dira ikusgai. Erretratuekin ez da ausartu oraindik, baina jendearen eskaera dela eta, hauek egiten ere saiatu behar omen da. Marta oso gustura agertu da jendearen erantzunaz eta zortzi koadro saldu ditu. Bere asmoa egindako lana ezagutzera ematea da eta hurrengo erakusketa Ordizian antolatuko du.



Euskara Urretxun

1525. urtean Andrea Navagiero, Karlos V.aren gortean Veneziako enbaxadorea, Gasteizen izan zen, eta bidaia horren ondorioz honako hau idatzi zuen: "Gasteizen erdaraz hitz egiten dute, baina euskara ulertzen dute, eta gainerako herrietan euskaraz mintzatzen dira". (Arabako euskarari buruz jakin dena. Henrike Knörr).

Hori idatzi zenetik hona urteak pasa arren gure herrira etorri gero antzeko zerbait esateko aukerak daudela deritzogu, eta adibide gisa iaz gertatu zena gogora ekarriko dugu. Alkate eta zinegotzi aleman batzuk Urretxun izan ziren eta hemen igaro zuten azken egunean bertako korporazioarekin afaldu ondoren hango eta hemengo alkateek guztiontzat hitz egin beharra izan zuten. Hangoek alemanieraz esandakoa gaztelerara eta gazteleraz esandakoa alemanieraz errepikatuz. Ondoren, bertan ginen guztiok abesten hasi ginen, batzuk alemanieraz eta beste batzuk euskaraz, guztiok txanda errespetatuz. Bisita horren ondorioz ez dakigu haiek honako hau idatzi zuten ala ez: "Urretxun gazteleraz hitz egiten dute eta abestu euskaraz". Auskalo!

Herria euskalduntzen ez den bitartean agian halako gauzak entzun beharrean suertatuko gara, baina herriko ordezkariak ez daukate zergatik ez utzi garbi gure hizkuntza zein den kanpoko norbaiten aurrean, eta ezta ere euskara erabili ezinean suertatu edozein herritarrekin. Hau ekiditeko PNV-EAJ eta EAKo ordezkari batzuei planteatu genien bilera bat egitea euskararekiko hitzarmena aztertzeke eta hala udaletxearekiko harremanetan herritarrek euskara erabiltzea posible izan dezaten. Egunak pasa dira eta haien aldetik dagoen erantzuna ixiltasunarena da, antza denez euskaldun petoak direnen botoak nahi dituzte baina euskaldunenganako errespetoaren konpromezua ez dute nahi.

Badirudi Urretxuko PNV eta EAK ez dutela kontuan hartzen euskara ez duenak euskara dutenekin komunikatzeko ezintasuna adierazten duela.

Jon Mikel Irigoras

Jesus M^a Urbegain

Urretxun H.B.ko zinegotziak

**URRETXU-
ZUMARRAGAKO
EH
EUSKARA
JARDUNALDIK**
Apirilak 16, ostirala
Arratsaldeko 7:00etan
Legazpi dorretxean
Deialdi irekia
Euskaltzale guztiontzat

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13



Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 943 724482



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 **URRETXU**

Txikiteroa, desagertze- dagoen espeziea?

Aspaldiko ohitura omen dugu inguruotan lanetik irten ostean lagunekin edo lankideekin ardo batzuk hartzea. Txikiteo izenez ezagutzen dugun honek baditu zenbait berezko ezaugarri. Gehienak arratsalde soilik ibiltzen dira, baina jubilatutako batzuek goizez ere euren errondak egiten dute eta koadrila bakoitzak bere ibilbidea du eta txikiteora berandu heltzen denak

badaki non topa ditzakeen lagunak.

Azkenaldi honetan lagunekin jardunean egoteko aitzakia den txikiteoa hizpide dugu. Alde batetik, ardo bereziaren salneurria igo delako eta bestetik txikiteoa desagertze- dagoen ohitura omen delako. Txikiteroak gero eta kezkatuagoak daude: ardoaren salneurriak gora jarraitzen badu txikiteatzeari utzi

beharko omen diote azkenean eta ohitura hau guztiz desagertuko da. Askoren ustez azkenean, Europako beste herri batzuetan bezala, lagunekin etxean elkartzen hasi beharko dugu hemen ere. Txikiteoaren inguruan hitz egiteko, zer hobe taberna batera gerturatu eta eguneroko lanaren ondoren ardo batzuk hartzen ari ziren zenbait lagunekin egotea baino.

Zumardi elkarteak egunero ateratzen dira elkartetik arratsaldeko zazpiak inguruan zenbait txikito hartzeko. Guk Luis, Marino, "Tinín", Pedro, "Pakito" eta Javierrekin hitz egin genuen. Astegunetan bospasei lagun elkartzen dira eta beraiek "la corta" deitzen dioten ibilbidea burutzen dute: Bidezar, Piedad eta Eliz-Kaleko tabernetan ibiltzen dira. Asteburuetan, berriz, ibilbide luzeagoa burutzen dute eta Legazpi kalera jaisten ere "ausartzen" dira. Marino jubilatuta dago eta bazkaldu baino lehen ere bere errondak egiten du, baina Urretxuko tabernetan aritzen da elkartetik kanpoko beste lagun batzuekin.

Txikiteoaren helburua "jendearekin elkartu eta pixka bat hitz egitea da, laneko gorabeheraz pixka bat ahazteko. Gure hizketaldiko gai nagusiak pelota eta futbola dira. Emakumeek ez dugu hitz egiten, baina aurrean jarritik gero elkarri adarra jotzen aritzen gara".

Marinok izan ezik, beste guztiek ardo berezia hartzen dute, baina halere, ez dira salneurriaren igoeraz kezka "hemen igoera ez da beste zenbait tokitan bezain handia izan eta beraz, oraindik ez gaitu gehiegi kezkatzen". Txikiteoa

hasi baino lehen pintxoren bat jateko ohitura ere badute "etxetik presaka atera eta batere jan ez badugu, lehenengo tabernan pintxoren bat jaten dugu txikiteorako sabela prest edukitzeko".

Garai bateko txikiteoa ezberdina omen zen: "lehen koadrila bakoitza bere tabernan elkartzen zen eta partidatxoak jokatu ondoren poteatzera ateratzen ginen. Gero elkarteen sorrerarekin koadrila ezberdinak elkartu ginen. Lehen txikiteoan

abesteko ohitura handia genuen. Dena den txikiteoa ez da hain gauza zaharra gure ustez, duela 40 urte ez zegoen egunero ardoak hartzeko ohiturarik".

Txikiteoa galdu egingo dela ziur daude "gu izango gara azkenak. Medikuek egun guztian beldurra sartzen aritzen dira eta egungo gazteek ez dute ardoa hartzeko ohiturarik. Gazteek asko edaten dutela esaten da, baina gure ustez gure garaian gehiago edaten genuen".



Zumardiko lagunek Bidezarren hasten dute euren ibilbidea

Etxe-Azpi elkarteko lagunekin elkartean bertan egon ginen. Euren burua ez dute txikitero peto-petotzat hartzen, baina sarritan joaten dira txikito batzuk hartzera lanetik irten ondoren. Hala ere, koadrila osoa asteburuetan soilik elkartzen omen da.

Ibilbidea arratsaldeko 7:30etan hasten dute Kalebarrenen eta ondoren Urretxuko Avenida inguruko tabernetara joaten dira.

Euren ustez "txikiteoa gauza ona da lana egin ondoren lasaitzeko eta lagunekin egon ahal izateko." Orohar denetatik hitz egiten omen dute txikiteoan, baina 5. txikitorarte ez dela elkarriketa gairik ateratzen esan zuten txantxetan.

Normalean ardo arrunta edaten omen dute eta norbaiti berezia eskatzea otutzen bazaio errieta egiten omen diote. Ardo arrunta edaten dutenez, txikitoaren igoerak ez die kalte handirik egin, "denominación de origen Barrendiola ez da asko igo, erreserbak dira asko igo direnak".



Ez dute elkartean edateko ohiturarik.

Arrazoi honengatik eta beste batzuegatik txikiteoa desagertu egingo dela uste dute. Lehen jende gehiago ibiltzen omen zen txikiteoan eta ostirala bitartean jende gutxiago ibiltzen omen da. "Orain jendea ostiraletan elkartzen da. Bestela ere txi-

kiteoa desagertu egingo da. Gero eta jende gehiago elkarreetan biltzen da eta botila batzuk zabaldu eta bertan edaten dute. Guk, hala ere, ez dugu halako ohiturarik". Ohitura honen zaleak ez direla argi ikusi genuen, beraiekin elkartean egon ginenean partidatxoak jokatzeko ari ziren bitartean ez baitzegoen edalontzirik mahai gainean.

Jose Mari, Miguel, Joxe eta Benito **Gibelurdin elkarteko lagunak** dira. Egun sei lagun inguruk zapatu eta igandez bakarrik txikiteatzen dute goiz eta arratsaldean Urretxuko aldapa inguruko tabernetan. Duela urte batzuk egunero dozena bat txikito hartzen omen zituzten eta Kalebarrenera jeitsi ere bai, baina adina dela eta ez omen dute jada lehengo sasoirik. Txikiteatzeko ere sasoiaren egotea beharrezkoa omen da. Orain elkartean bildu, partidatxoak jokatu eta mokauren bat jaten dute bultzatuta egiteko ardo pixka batekin.

Txikiteoa lagunekin elkartu eta herriko gaien berri izateko egiten omen dute, "denetatik hitz egiten dugu, baina batez ere herrian gertatzen diren gauzetaz jarduten gara". Ardo arrunta edaten dute, eta euren esanetan "lehenengo ardoa ez da gustura edaten, baina ohitura ardoa edatea da eta betidanik hala egin dugu. Ez dugu behin ere

pentsatu beste ezer edatea, nahiz eta lagunekin egoteko balioko lukeen. Beste ezer edan baino, hobe gutxiago edatea".

Ardoaren prezioaren igoera gehiegizkoa izan dela diote, "baina benetako txikiteroek, haserretu arren, ez diote ardoa eda-



Duela urte batzuk egunero egunero txikiteatzen zuten.

teari utziko. Txikiteoa desagertu egingo da, baina gazteek ohitura jarraitzen ez dutelako. Egun bospasei koadrila inguru bakarrik ikusten dira herrian egunero txikiteatzen. Guk asteburuetan behintzat jarraituko dugu".

CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

**Madaia plazoletan
20700 URRETXU**

TABERNA
Belardenda
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎943 720819
ZUMARRAGA

belardenda
Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura
Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak
Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi
* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU

OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎943720306
ZUMARRAGA

20 urtetik gora pedalei eraginez

Goierri K.E.ko zikloturistek 21 urte daramatzate jada igande eta jaiegunetan bizikletak hartu eta goizpasa kilometroak eginez. 1978an bizikletan ibiltzen ziren zenbait lagun elkartu zirenetik, taldea hazten joan da eta egun 90 kide inguru dira. Euren esanetan, garrantzitsuena ondo pasatu eta jendea eta lekuak ezagutuz kirola egitea da. Txango hauei esker, oraindik ezagutu gabe izango zituzten Gipuzkoa bertako txoko asko ezagutzeko aukera izan omen dute.

Urte hasieran egutegia zehazten dute eta denboraldia martxoko lehenengo igandean hasi eta urriaren 12an bukatzen dute lagunarteko bazkari baten bidez. Helburu nagusia ondo pasatzea eta lagunarteko giroa sortzea denez, irteera guztietan geldialdia egiten dute hamaiketako hartzeko. Inguruetako lekuak ezagutzeko egiten dituzten irteerez gain, egun batzuetarako txangoak ere antolatzen dituzte. Honela, azken 20 urte hauetan Alpeetan, Piriniotan, Burgosen, Palencian, Leridan... ibili dira.

ZIKLOTURISTA KLASIKAK

Denboraldi haserako irteerek 50-60 kilometro inguru izaten dituzte eta denboraldi amaierakoek 130 inguru jada. Urtean zehar 2500 km inguru burutzen dituzte irteera ezberdinetan, baina asteen zehar ere entrenatu beharra dagoenez asteburuko irteeran sasoitsu ibiltzeko urtean 7000-8000 km egiten dituzte.

Eurek antolatutako irteerez gain, gainontzeko taldeek antolatzen dituzten klasiketan ere parte hartzen dute. Iaz



Euskal Herriak kanpoko paraje ugari ezagutu dituzte zikloturismoa eginaz.

“Quebrantahuesos” famatuan lagun gehien bildu zituen elkarteak izan ziren. Sekulako beroa egin omen zuen eta inoiz igo duten mendaterik gogorrera orduan igo zuten, Marie Blanche hain zuzen ere. Bestalde, Perico Delgado, Bilbao-Bilbao eta Miguel Indurain klasika famatuetan ere parte hartzen dute. Klasika hauetan klubaren arteko konpetibitatea egoten omen da eta ez omen da behar hainako adiskidantza giroa sortzen.

Zikloturista taldearen batzbesteko adina gero eta altuagoa da eta orain jendea gehienbat 40 urtetik gora sartzen omen da taldean. Honen arrazoia gazteen gauean ateratzeko ohitura da euren ustez eta egun talde batetan zikloturista izateko ezkondua egotea ia ezinbestekoa omen da. Izan ere, parranda eta igandeko bizikleta irteera inkonpatibleak dira Goierri K.E.-ko zikloturisten ustez.

Bestalde, errepideetan bizikletan ibiltzea gero eta arriskutsuagoa dela onartzen dute. Hau dela eta guztiek asgurua egina dute. Errepideen egoeraz kexu dira: “Azken urte hauetan trafikua asko hazi da eta errepideak berak dira, ez da bazterbi-

de berririk egin. Bestalde, beste errepide bat egiten den bakoitzean zaharra zaintze-ari uzten diote eta azkenean ez dugu guretzat hain lasaiak diren errepide zaharretan ere gustura ibiltzerik. Gainera, trafikoa handia duten errepideak ere ez dira behar adina konpontzen, Eitzako igoera honen adibide garbia da”.

PASADIZO UGARI

Errepideetan dagoen arriskua handia bada ere, ez dute mendian ibiltzeko asmorik, “hemengo mendietan aldapak oso gogorak dira eta jeisteko trebezia handia ere behar da. Gainera, mantoago ibiltzen zarenez, denbora berean leku gutxiago ezagutu ditzakezu”.

Hainbeste urtetan jai egun orotan bizikletan ibili ostean, hamaika gora-behera kontatu ditzakete Goierri K.E.ko zikloturistek. Behin Lleidan zeudela parke natural bat zeharkatzea erabaki zuten. Elurra egongo zela eta ez igotzeko aholkatu zieten, baina behin Franco bertara igotzeko gai izan omen zen eta beraiek ez zeuden gutxiago izateko prest. Bizikleta bizkarrean hartu eta gorantz abiatu ziren. Sei ordu pasa zituzten hantak elurretan sartuta, errekek oinez zeharkatzen... eta ondoren beste 100 km. zituzten bizikletaz ostatu hartu zuten lekura itzultzeko. Hala ere, honek ez zien bizikletan ibiltzeko zaletasuna kendu, orduetik hona kilometro mordoa egin baitituzte eta aurrerantzean ere hala jarraitzeko asmoa baitute.



Adiskidantza giroa nagusi da zikloturisten artean.

A. Alejandro: "Denborarekin lehen taldean jokatzeko aukera izango dut"

Iaz errealeko jubenil taldearekin estatuko txapeldun izan ondoren, Alberto Alejandro zumarragarrik lehen denboraldia jokatzeko ari da Realeko bigarren taldearekin. Albertok aurrelari postuan jokatzeko du eta bere birtute nagusia abiadura du. Denboraldi hasieran oso minutu gutxi jokatu bazi-

tuen ere, azken partiduetan haserako hamaikakoan jokatzeko ari da. Jada 8 partida jokatu ditu hasieratik eta hauetan 5 gol sartu ditu. Taldeak denboraldia lehen postuan amaitzea ia ziurtaturik du eta helburua ondoren jokatzeko duten ligaxkan 2. B mailara igotzeko saria lortzea da.

Zer moduz lehen urte hau Realaren bigarren taldean?

Jubeniletik 3. mailara dagoen aldaketa nagusia eritmoarena da. 3. mailan jokalariek beterranoagoak dira eta azkarrogo jokatzeko dute. Bestalde, entrenatzaileak ere berria da niretzat eta taldean aurrelari asko eta onak gaude. Denboraldi hasieran aulkian egotea egokitu zitzaidan eta asko kosta zait haserako hamaikakoan sartzea, baina entrenatzaileari erakusten ari naiz haseratik jokatzeko gai naizela.

Nola ikusten duzu taldea?

2. B mailara igotzea da gure helburua eta denboraldi hasieratik erakutsi dugu horretarako gai garela. Oso partida gutxi galdu ditugu eta bigarrenari puntu askotako abantaila diogu. Dena den, azkenaldi honetan pixka bat makalago gabil-tza, nekearen eraginez, nik uste. Hala ere, oraindik ligan gelditzen diren partida guztiak irabazten saiatuko gara eta nik uste duten 2. B mailara igotzea lortuko dugula. Baina oso zaila izango da, aurkariak liga-koak baina hobeak izango baitira eta denboraldi osoko lana partida gutxitan erabakitzen baita.

Zein da zure helburua datorren urterako?

Lehen helburua bigarren taldean titular izatera heltzea da eta behin hau lortu ondoren balio dudana erakustea. Aurten kalte handia egin dit, iaz jubenil mailan goleatzaile nagusia izanik 43 golekin, bat-batean eserlekuan egoteak. Baina nire ustez entrenatzaileak badaki golak egiteko

ahalmena dudala eta konfidantza eta minutuak eskeiniz gero forma hartu eta golak sartuko ditudala. Nire helburua 1. mailan jokatzeko da eta denborarekin lehen taldean jokatzeko aukeraren bat izango dut.



Hainbeste atzeritar egoteak ez al dizue bidea ixten?

Denontzat hobe litzateke Realean atzeritarrik egongo ez balitz, baina hau ez dago nire esku. Nire ustez 2. taldeko jokalariek hemendik urte batzuetara 1. mailan jokatzeko gai izango garela erakusten ari gara. Aranburu jokatzeko ari da, Barkero eta Sergi Franciscok ere aukeraren bat izan dute... bigarren taldean guztion artean egin dugun lan onari eta euren ahalmenei esker.

Lehen taldeaz ari garenez, ez al duzu

aurten makal xamar dabilela uste?

Ez dabil oso ondo, ez. Talde guztiak indartsuak direla argi dago eta oso zaila da edozein partida irabaztea, baita sailkapenaren behelaldean daudenen aurka ere. Dena den, argi dago iaz baino okerrago jokatzeko ari dela. Hala ere, nik uste azkenean 6 lehenengoan artean gertatuko dela eta gutxienez UEFAn sartu.

Futboleko jokatzeko gain, ikasten ari al zara?


Nazioarteko merkataritza ikasi nuen eta goizetan Legazpiko GSBn praktikak egiten ari naiz. Asteartean ezik, ez baitugu entrenamendurik, arratsaldero taxiz Zubietara eramaten naute. Egia esan, gusturago nago etxean Donostian pisan egonda baino. Azken udako aurre-denboraldian, goiz eta arratsaldean entrenatzen genuen eta beraz Donostian izan nintzen pisu batean. Orduan ikusi nuen etxean bezala ez dela inon egoten.

Bukatzeko, zein jokalarik duzu bereziki gustuko?

Amak esaten didanez, txikitan Quini oso gustuko nuen eta beti bera bezalako izan nahi nuela esaten omen nuen. Egun ez dut bereziki atsegin dudarik jokalaririk. Ilie Valenciara joan zenean, adibidez, txunditu egin ninduen. Baina urtero liga ikusi ahala jokalariek berriak atsegin ditut: Rivaldo, Denilson... Kovacevic ere sekulako jokalaria dela uste dut. Buruz paregabea da eta oso langilea ere bai. Madrileko kamiseta jantzi izanak sortu zuen iskanbilak kalte egin dio.

Ferretería

BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31

ZUMARRAGA



**Arantxa Begiristain
Saltzailea**

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Andereñoa, baina liburu artean ibili behar nuen eta...

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Neguan beroa eta udaran epela.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin kafetxo bat hartuz "kotilleatzea", noski!

✓Zer opari hartuko zenuke gustura?

Opariak beti ongi etorriak dira.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Goenkaleko Xanti. Zelako gizon puska!

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Nik nahiago dekantatzeko, baina beti izaten da gehi-
go nekatzeko.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Bat bera ere ez, oso gustura nago!

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?

Aurpegira orokorrean: begiak, irrifarrea...

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?

Aparkalekuak! oinarritzko elementua.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?

Agiña auzoa, nola ez!

✓Zumarragan izan ezik non biziko zinateke gustura?

Agiñan! bertako aire oxigenatua...

✓Zein da duzun ohiturarik okerrera?

Momentu ezegokietan pipak jaten hastea.

✓Bete gabeko amets bat?

Loteriaren presentzi falta!

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Entzuteko eta dantzatzeko.

✓Kantu bat.

Gozategi taldearen azkeneko diskatik edozein.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Zain egotea.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Pertsonen arteko konfidantza eta adiskidetasuna.

**✓Norengatik joango zinateke azken muturre-
ra?**

Familiarengatik.

✓Gaua ala eguna?

Biak euren armonian.

✓Lo egiteko zer?

Logurea, ohea... eta bakea!

✓Gustuko janari bat?


Pastelak.

✓Ura, ala...

Sagardoa eta Errioxako ardo on bat.

**✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez
duzun hori?**

Acapulcora bidiaia.



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonaen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75



Aitor kezkatu aurpegia duzu argazkian. Lasai, aurtan ere urtebetetze egunean opariak jasoko dituzu eta!
Zorionak familia-koen eta lagunen partetik.



Iñaki, zu bai abila nesketan! Baina hurrengoan kontuz ibili zaitetz amak dantzan harrapatu ez zaitzan.
Zorionak eta ez ahaztu ikasketetaz!



Maria Dolores ea hurrengoan irrifart-suago ateratzen zaren, neska!
Zorionak familia-koen eta lagunen partez.



Pili, erromatarren garaitan bizi al zara oraindik? Zu zoriontzeko argazki bat behar dugu, ez mosaikoa!
Zorionak familia-koen eta lagunen izenean!



Alikate, alioli, Alicia, Ali-baba... zure izenaren laburdura badakigu, baina ez dakigu zihur zure izena zein den.
Zorionak Ali eta ondo pasa!



Irati ondo portatu al zara azkenaldi honetan? Txintxo ibili zaitetz Jaunartzea egin bitartean behintzat!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Maria Nieves hori da hori "interesante" aurpegia! Argazkia mutil-lagunari emateko espresuki atera al zenuen?
Zorionak eta ondo pasa!



Rosa Mari, lorategiko larrosa politena zara... baina zure arantzek beldurra ematen dute!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Amaia Urretxun bizi ez zarenetik larunbata gauetan gusturago lo egiten al duzu? Orain behintzat Jonex ez zaitu esnatuko etxera heltzen denean.
Zorionak sinpatika!



Itziar, begi haundi horiekin zuzen-zuzen begiratzen badituzu mutilak gorrituko dituzu neska!
Zorionak eta ea urtebetetze egunean opari asko dituzun.



Marijose buruak asko pisatzen al ditu? Eutsi ezazu, bai, bestela lurtean bukatuko duzu eta!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Tommy, zer moduz pasa zenuen San Patrizio eguna? Pozten gara Irlanda aldean ere irakurle bat izateaz. Ea noiz ikusten zaitugun berriro gure artean.
Happy birthday!



18 urte betetzea oso garrantzitsua denez, modu berezi honetan ere zoriontzera bururatu zaigu. Berandu xamar bada ere, **zorionak** Ana zure lagun eta gurasoen partetik!



Jabier, gustura ikusten zaitugu argazkian! Aste Santuan oporretara joaten bazara ea eguzkiak pixka bat belzten zaituen!
Zorionak eta ondo pasa.



Mari Jose aurreko-arekin hasarratuta al zaude? Borrokarako prest zaudela dirudi neska!
Zorionak!



Xabier, begi horiekin katua dirudizu motel!
Ez zaiguzu guri hatzamarrik egin behintzat!
Zorionak eta ondo pasa familiakoen izenean.



Angela zuk ere mahastiak al dituzu? Espero dugu Angela Channing bezain maltzurra ez izatea!
Zorionak!



Jon, zerk utzi zaitu hain txundituta? Argazkietan irrifarre egitea komeni da motel!
Zorionak etxekoan izenean eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Hementxe dugu neska zintzo eta fina, etxean langileak dantzan arina sekula izan gabe hantetako mina etxekoan partetik **zorionak** Martina!



Hona hemen ale honetako neskarik irrifartsu eta koloretsuena. Zure argazkilaria zein den esan beharko diguzu. **Zorionak** Maria Eugenia!



Beni argazki kamerak ez al zuen flas-hik? Iluntasunaren erdian zure aurpegia nekez bereiztu dezakegu.
Zorionak eta ondo pasa!



Joxe zuk duzu zuk gizon osasuntsu eta sasoiaren itxura!
Zorionak familia-koen partez eta segi orainarte bezala.



Mila, Mila... zu ere ihauterietan egurra banatzen ibili al zinen? Argi ibili datorren urtean beharbada buelta etorriko zaizue eta!
Zorionak!



Aurtengoa ederra benetan. Elurretan ibiltzeko era eta kalean patinak. Oso ondo pasa genuen zure urtebetetzean.
Zorionak Aiala!



Edu zertan ari haiz zeharka begira? Intereseko zerbait ikusi al duk? Argazkian ondo ateratzeko zuzen begiratu beharra zegok, motel!
Zorionak!



Karlos, neskekin zaudenean Argiñano eta etxean "el de los ... largos". Amak harra-patzen bazaitu!
Zorionak eta etxean ere mantala jarri ezazu!



Nekane ez al duzu argazki kamera berria erosi behar? Argazki hau behintzat ez da oso txukuna atera!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Zorionak gure Zumarragako neska jator eta "ligona" rentzat. Ikasketak gerorako utzi eta parrandara joan zaitetz.
Zorionak Ana Belen!



Erik, eskandinabiarrak jatorrikoa al zara? Parranda ederrak botako dituzu zure lagun bikingoekin! Non utzi dituzu adarrak?
Zorionak!



Juanito non atera zenuen argazki hori? Zure atzekaldeak bezain gorrituta zaude ia! Ez zinen ba parrandaren batean egongo?
Zorionak!



Oskar, argazki hau komisaldegiko fitxategitik eman al digute? Hori duk aurpegia, hori!
Zorionak eta alaitu ezazu aurpegi hori urtebetetze eguneko.



Rafa, zertan habil motel? Txapela eramaitetik Candanchun "pertsianak pintatu" eta interneten nabigatzea pasa haiz!
Zorionak!



Gloria, aldizkarian ateratzeko eguzkitako betaurrekoak ken itzazu goardia zibil itxura duzu eta! **Zorionak** etxekoan izenean.



Maite, konturatzen zarenerako Garazi mutil laguna etxera eramaten izango duzu. Lasai neska, besteok ere aurtan urtebete zaharragoak gara eta!
Zorionak!



Patrizia ez duzu saltsera aurpegi aurpegi makala! Ziur herriko txutxumtxu guztien berri izango duzula.
Zorionak familia-koen eta lagun guztien partez.



Badakigu zure urtebetetze eguna apirilaren lehenengoan dela, baina saltoka eta brinkoka ala eserita ospatu behar al duzu? **Zorionak** Maier eta ondo pasa!

The logo for 'ikxer' is an oval with a dark blue background. The word 'ikxer' is written in a white, stylized, rounded font. A small red heart is positioned between the 'i' and the 'x'.

SUKALDE ERAKUSKETA



Udala Enparantza, z/g
Tel: 943 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta,5
Tel: 943 72 50 75
20700 URRETXU